

...eta

Kitto!

820 zkia.
2012-X-5

Txotxa!

**Sagardo
Egunaren
bezperan**



Bidebarrieta, 2
Tel: 943 30 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
Lehena zerbitzu optikoetan

Berrikusi zure seme-alaben hartz-osasuna



Ainhoa Zulueta DOKTOREA

“Haurzarotik egiten dugu prebentzioaren alde, hortzak hazten ari direnean zainduz”

Maitane G. Iñiguez DOKTOREA

“Umeen hortzak aztertzea garrantzitsua da, kolorazio-aldaketak, orbanak edo puntuak dauden ikusi ahal izateko”

Irabazal hartz-klinikan txikiak zaintzen ditugu. Dentistara urtero joatea aldi baterako hortzaldiaren (esne-hortzak) prebentzioaren oinarria da; umeei hortzak nola garbitu eta hortzetako fluorazioari buruzko saio didaktikoak eskaintzen dizkiegu.

– Noiz joan behar du haur batek lehen aldiz dentistarengana?

Urtebete egiterakoan egin behar da lehen bisita, dentistarekin batera dieta, biberoi, garbiketa eta fluoruraren erabileraren inguruko aholkuak erreparatzeko. Haurra klinikan eroso sentitzea eta ohiko azterketetara ohitzea ere lagungarriak dira.

– Noiz hasi behar dugu hortzak garbitzen?

Hortzak irten baino lehen garbitzen hasia komeni da, egunean bi bider eskuoihal umel bat pasatuko diogu hortzoietatik eta irteten ari diren hortzetatik (garrantzitsuena gauekoa da). 2 urterekin eskuilarekin eta fluorura duen pastarekin hasiko gara, egunean 3 bider.

– Kariesari nola egin diezaiokegu aurre?

Diagnostiko goiztiarra da kariesik ez edukitzeko tresnarik onena.

Aitzindariak gara LASER bidez kariesaren diagnostikoan.

Aholku praktikoak haur txikiarentzat:

- Ez sartu haurra ohera azukredun likidoz betetako biberoiarekin
- Urtebeterekin edalontzian edaten hasi
- Azukre gutxiko elikagaiak (zuku naturalak)
- Ez busti txupetea azukrea duten produktuetan (eztia, azukrea...)

– Zergatik da garrantzitsua esne-hortzak zaintzea, gero erori egin behar baldin badira?

Esne-hortzen infekzioak azpian dagoen hortza (behin betikoa) kaltetu dezake. Esne-hortza garaia baino lehenago erortzen bada, behin betiko hortzaren kokapena eta irteera alda daiteke.

– Zer gerta daiteke kariesari ez badiogu aurre egiten?

- Infekzioak, mina eta umearen garapen fisikoaren murrizketa.
- Karies gehiago behin betiko hortzetan.
- Esne-hortza galtzen bada: ESPAZIOEI EUSTEKO aparatu txiki bat jarri behar da, behin betiko hortza irten arte lekua gordetzeko.

– Atzamar lodia zupatzea txarra da umearentzat?

Atzamarra zupatzea kaltegarria da, eta baita txupetea 18-24 hilabetetik aurrera erabiltzea ere, mihiaren posizioa aldatzeak gaizki hozkatzea ekar dezakeelako. GALDETU ZURE DENTISTARI!

– Fluorra erabiltzea ona da?

Fluorrak hortzak kariesetatik babesten ditu, aurrera egin ez dezan. Txorroreko urak fluorra dauka, eta ur hori erabiltzea etengabeko babesa da. Karies-arriskuaren arabera hartz-klinikan fluor topikoa erabiltzea da kariesari aurre egiteko tresnarik onena.

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

Egizuz PADI-ren azterketak

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

“Euskararen normalizazioan desiragarria da kontsentsua, baina ezin da traba izan, erdaldunak haserretuko zaizkigun beldur. Argi dago euskarari zentralitatea emateko, erdera kendu behar da eta zentrotik.”

(LOREA AGIRRE, ANTROPOLOGOA)

“Atzerriko hizkuntzak ikasteko orduan, giza adimenak ez ditu barneratzen egunean hamar kontzeptu berri baino gehiago. Beraz, komenigarria da kolpean informazio gutxi ematea. Hala ere, elebiduna izatea lagungarri da”

(ALAN GRIFFIN, IRAKASLEA)

“Ukimenezko bitrozeramiket itzalita daudenean izugarritzko kontsumoa dutela ohartu gara: 40 wattetik 50 bitarte kontsumitzen dute orduko eta hori ezin da onartu. Hori jana eguzkiarekin prestatu daitekeenean”

(J.M. JIMÉNEZ, ENERGIAN ADITUA)

“Hemendik gutxira robot bat konturatuko da pentsatzen diharduela: gugandik ikasi eta gure pertsonalitatearen zati bat hartzeko gai dela. Hori txakur bat baino askoz gehiago izango da. Sartu garen hamarkadan bertan”

(RICARD SOLÉ, BIOLOGOA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

ITXURIA EMON.- Txukundu, apaindu. “Ez dau guztiz ondo atara, baiña itxuria emon detsa”. Itxuratu, forma eman. “Itxuria emon detsa etxiari, andra-geixa datorrenerako”.

ITXURIARI BEGIRATZEKUA EZ IZAN / ITXURIAREN JABE EZ IZAN.- Norbaitek azaletik edo kanpotik ematen duena ez dela adierazteko. “Diru eske nigana? Ez naiz ni, gero, itxuriari begiratzekua!”. Norbaitek dirudiena badela aditzen emoteko ere erabiltzen da esapide hau. “Itxuriaren jabe bada, ez dau eukiko indar haundirik”.

eskutitzak

DEPORREKO ATE IREKIETAKO SARIAK

Honako hauek izan ziren Deporreko ate irekien ekitaldien barruan saria duten zenbakiak: 1), 102; 2), 655; 3), 649; 4), 1927; 5), 1863; 6), 302; 7), 460; 8), 1705; 9), 1010; 10), 1706; 11), 5; 12), 644; 13), 404; 14), 1284; 15), 1295; 16), 966; 17), 1992; 18), 296; 19), 310; 20), 1702; 21), 1053; 22), 423; 23), 1063;

24), 1121; 25), 228; 26), 1104; 27), 244; eta 28), 271. Zozketako opariak jasotzeko, Deporretik pasatu behar dira saritutakoak.

Aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiegu opariak eskaini dizkiguten guztiei, tartean Mara-Mara, Mahoiak, CDR, Alita eta Euskadiko Kutzari.

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA



ARGITARATZAILÉA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIÉA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILÉA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi.

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

autuan

GERNIKARA TXANGUA


Untzagako jubilau etxiak urriaren 29rako urteeria antolatu dau Gernikara. Autobusa Ego-Gaiñetik 10.00etan urtengo da eta bazkarixa 14.30xetan izango da Arita-Berri jatetxian. Bazkalostian dantzaldixa egongo da.

14 URTEKO ZIGORRA

Iazko iraillian bere arrebiari aizkorarekin eraso egin zetsan 63 urteko eibartarrarendako 14 urteko espetxe zigorra eskatu dau fiskalak, arrebia hiltzeko saiakeria egotzita. Gaiñera, zaurituta kuari 10.000 euro pagatzeko eskaeria be presentau dabe. Erasuaeren ondorioz andrazkuak hainbat osasun arazo euki dittu.

PSE-EE-REN EKITALDIXAK

Gaur 19.00etan Iñaki Arriola PSE-EE alderdiko zerrendaburuak mitiña emongo dau Untzagan eta astelehenian, barriz, 18.00etan Patxi López lehendakaria eta Rafael Bengoa osasun sailburua Eibarren izango dirala aurreratu dabe, ospitala egingo daben tokixa eta Amañako pasia ikusten.



Ongietorri berua Aniaiz Ariznabarretari

Aurreko barixakuan egin zetsen ongietorri-ekitaldixa Aniaiz Ariznabarretari. Ekin kasuarekin zerikusixa zekela egotzita oiñ urte bi, 2010eko iraillaren 14an atxilotu eta kartzelaratu eben eibartarra eta uztailla amaieran aske lagatzeko erabagixa hartu

eban Javier Gómez Bermúdez Espaiñiako Auzitegi Nazionaleko epailliak, ezarrittako bermia ordaindu eta gero. Barixakuan Eibarko gaztetxian ekitaldixa eta herri-afarixa eginda ospatu eben batutakuak Aniaizen askatasuna.

Juan Carlos Esturoren bigarren liburua

Abuztuaren 3an 74 urterekin hil zan Juan Carlos Esturo eibartarraren bigarren liburuak argixa ikusi barri dau: "El arte de cocinar hongos" lana Danobatgroup-ek babestuta kaleratu dabe eta egilliak berak liburuak ikusteko aukerarik izan ez badau be, hill aurretik oiñ argittara emondako lana idatzitta laga eban. 2009xan "Manual para recolectar las principales setas y hongos comestibles de forma segura" emon eban argittara Esturok.



EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrileta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba
Tanatorio eta Errusketako labora
Egaldoren (ligna) pargiroan
Partikular, nortxo eta desaguru eraso zerbizua
Koskor - Eskola - Urtumarako eskola
Eskola Hain eskola ospitaleen hartzen za ligo
Nazioa eta Nazio bertoko taldeak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa 14/14

TELEFONOA (34 935) 943 201 951

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

nafarroaonez
ZIZURTXIKIA
urriaren 21ean

Irteera:
08.30etan
Ego-Gaiñetik



Buelta:
19.00etan

kolore&hitz
nafarroaonez12
etikastola zizurtxikia

11
euro

Lópezen gobernuaren onurak

Aurreko barixakuan eskindutako prentsaurrekuan, Eneko Andueza eta Miren Gallastegi ordezkari sozialistak oso modu positibuan baloratu eban Patxi Lópezen gobernuak gure herrixari ekarritako "onurak", Eusko Jaurlaritzak Eibarren inbertidu dittuan 91 millioi euruen garrantzixa azpimarratziarekin batera. Lópezen gobernuak Eibarren egin dittuan inbersiño horren artian batzuk aittatziarren, Ospittal barrixa, Polo Teknologikua eta Eibarreko Pasiua ekarri zittuen gogora. Hirurak "Lópezek aurreko kanpaiñian bere gain hartutako konpromisuak" dirala azalduta, "bete egin dittuela" azpimarratu eban. Ospittal barrixa eraikitzeko biharrak urrixaren 17xan esleituko dittuela aurreratu eban agerraldixan eta horretarako inbersiñua 29.900.000 eurokua izango da. Polo Teknologikuaren harira, Eusko Jaurlaritzak 9.665.000 euro emotiaz gain, baldintza berezixetan emondako 10.100.000 euroko maillegua



Gallastegi eta Andueza prentsaurrekuan.

horri gehittu bihar jakozela argittu eban. Trenbidia eta bertako zerbitzuak hobetzeko egingdako inbersiñua, barriz, 42.732.147 eurokua izan da.

Aldatzek Haur eskolia inaugurau dau

Aldatze ikastetxeko Haur Eskoliak aurreko astian ekin zetsan bere ibilbidiari, Zezenbide kaleko 3an. Haur Eskolia inauguratuta, Aldatzek

bere heziketa-eskintza haunditzen dau, 0 eta 18 urte bittarteko ikaslieri zerbitzua emonda. Ekitaldixan Arrate Larrañaga Probidentziako




Zezenbide kaleko 3 zenbakixan zabaldu dabe Haur eskolia.

SILBIA HERNANDEZ

Andra Mariren erlijiosen probintziaburuak, Marisabel Albizu Aldatze ikastetxeko zuzendarixak, Miguel de los Toyos alkatiak, Marijose Telleria Garapen Ekonomikua, Barrikuntza eta Enplegu zinegotzixak, Juan José Etxeberria Jesusen Lagundiaren probintziaburuak, Mikel Ormazabal Kristau Eskolako zuzendariorriak, Casilda Sarobe La Salle Ikastetxeko zuzendaritzako kidiak eta beste hainbatek hartu eban parte. Aldatzeko zuzendarixaren eta Eibarko alkatiaren hitzaldixa eta gero, instalaziñuak bisitau zittuen.

Wenzeslao Orbeako jaixak

Aurreko zapatuan, San Miguel egunian ospatu zittuen jaixak lehelengoz Wenzeslao Orbea kalekuak. Bestiak beste trikitilarixak lagundutako kalejiria, jolasak, herri-kirolak, txistorra pintxuak, bazkarixa eta play-backak osatu eban programia jaixen lehelengo ediziño horretan.



Lehelengo aldixa izan zan auzoko jaixak ospatzen. LEIRE ITURBE



Asier Ezenarro

Borgeren egia

Tomas Borge komandantea apirilean hil zen. Politikari, idazle eta gerrilaria: maitatua/gorrotatua. FSLN-ko sortzailea. Bizitza gogorrak izaera gogortzen du: egoera latzak oihanean, borrokan, tximinoak jaten... Somozaren aurkako borroka gidatzen. Berarekin ziren Eden Pastora "Komandante Zero" mitikoa eta Gaspar García Laviana apaiz asturiarra. Tomas harrapatu eta kartzelan sartu zuten, torturak jasan zituen eta torturatzaileekin buruari esan zion: "Hemendik ateratzen naizenean mendekua hartuko dut". Iraultzak Somoza boteretik bota zuenean, bere torturatzailearekin aurrez aurre aurkitu zenean, eskua luzatu zion eta barkatu. "Nire mendekua zure semearen eskolara joateko eskubidea izango da". Barne ministroa izan zen, EEBB-k Nikaraguaren aurkako guda aurrera eraman zuten sasoiari. Hemen ohituta gaude "diseinuzko politikariak" entzuten, teledistetan. Politikari asko bi hitzetatik bizi dira: Demokrazia eta Zuzenbidezko estatua. Teledista piztu eta laborategiko esaldiak besterik ez: Gu demokratok eta Lege-arauak errespetatu behar dira. Diseinuzko politikariak "joko parlamentarioan" kokatzen dute politika, baina politikak izate guztia inguratzen du. Politikak, herri langilearen alde egiten denean, sakrifizioak exijitzen ditu. Ez da egia politika adostasuna dela. Sistema kapitalistan beti dago klaseen arteko borroka eta batzuen alde egitea beste batzuei kalte egitea da. Burura etortzen zaizkit Jesusen hitzak: "Beroa edo hotza ez dena nire ahotik jaurtitzen dut". Tomasek hau erantzun zion behin kazetari bati: "Ezin da herria maitatu herriaren etsaien gorrotoa jasan barik". Borge komandanteak ausardia izan zuen bere bizitzaren izarra; horregatik burutu zuen iraultza. 80ko hamarkadan Hego eta Ertamerikako herriek jasan zuten politika neoliberalak eta "ajusteak" dihardugu jasaten orain Europan. Baina agian mendebaldeko gizarteak galdu egin dugu ausardia eta sakrifizioarako gaitasuna. Beldurtiak bihurtu ote gara?

asteko
8.190
datua

euro jasotzen dittue

Udaletik Amañako Jaixak; 5.940 Urkikuak; 3.690 San Kristobalekuak; 3.564 San Isidruak; 2.500 Agiñakuak; 2.160 Abontzakuak; 1.980 Santa Kurutzekuak; 1.890 Behetarrak alkartekuak.

Euskeriarekiko motibaziñua lantzen

Eguaztenian Indianokua gaztelekuan "Euskararekiko jarrerak eta motibazioa" izenburuko hitzaldixa emoten jardun eban Ainara Labado ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizaziño arduradunak. Udalarekin alkarlanian antolatutako saiua bereziki Astixa aisialdi taldeko begiraliendako pentsautakua zan

eta aurrerago beste talde batzueri zuzendutako hitzaldi soziolinguistikuak emoten segiduko



Eguazteneko hitzaldixa gaztelekuan izan zan. S. HERNANDEZ

dabe. Hurrengo saiua azaruaren 14an izango da eta gurasuendako bereziki pentsautako kontuak landuko dittue.

Bildukuak ortu ludikuen gaiñian

Martitzenian Igor Aldalur eta Be-goña Vesga Bilduko ordezkariak prentsaurrekuan azaldu ebenari jarraituta, "2011. urteko azaruari, mankomunidadeko ordezkariak Eibarko Garbiguniarendako eguan proposamena helarazi zeskun. Bilduk, urbanizatu bariko lurrian egittia onartu eban, beti be ortu ludikuak toki berian egitten bazittuen. Oin momentuan Gar-

bigune barrirako biharrak mar txandiagoz, baiña ez da iñundik iñora ortu horrek egitteko lurzuaren egokitzapenik ikusten". Gauzak holan, Bilduk ez eze PSE-EE alderdixak be hauteskunde programan ortu ludikuak egitteko asmaua jasotzen ebalu gogora ekarri nahi izan dabe, "beste behin udal gobernuak emondako hitza bete ez dabela" gaiñeratuta.



Biharrak hasitta dagoz, baiña ez dago ortuetarako tokirik.

Eibar Beldur Barik Sarixa

Berdinsareak Beldur Barik Jarrera! sarixaren 3. ediziñua deittu dau. Lehiaketan, andrak jasaten daben bereizkerixa-egoereri aurre egitten detsen neska-mutillan arte adierazpen modu guztiak onartu, balorau eta bultzatuko dabez. Lan horrek errespetuan, bardintasunian, askatasunian eta autonomixan, erantzukizun-kidetzan eta indarkerixa sexistaren gaitzespen irmuan oiñarritutako jokabide eta jarrerak izan biharko dirala argittu dabe.

Bete biharreko baldintzeri begiratuta, adierazpide mota guztiak onartuko dittue, baiña beti be bideo formatuan aurkeztuta: film laburra, bideoaklipa, lipduba, dantza, errezitatutako poemak edo kamariaren aurrian irakorritako gogoetak, bideo proiektuak, argazkixak edo artelanak erakustia, hiri inguruko performanceak eta esku hartziak...

12 eta 26 urte arteko neska-mutillak hartu leikie parte eta mailla bi bereiziko dittue. Sari orokorretik aparte, udalerrixak tokixan tokiko proposamen onenak saritzeko aukeria eukiko dabe eta, horregaittik, aurten "Eibar Beldur Barik" 2012ko sarixa emongo dabe (300 euro). Parte hartzeko proposamena berdintasuna@eibar.net helbidera bialdu biharko dabe eta beste kopixa bat jarrera@beldurbarik.org helbidera.



BARRIO autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7





ANDRES GUASCH (Unzaga Plaza-ko zuzendaria)

“Guretzat erakargarriak ez diren gauzak oso interesgarriak gertatzen zaizkie kanpokoei”

Aurreko barixakuan inauguratu zuten modu ofizialean Unzaga Plaza hotela, lehenago Arrate hotela izandakoa. Uztailaren amaieraz geroztik Heybar Hotels&Resorts enpresak dauka hotelaren ardura. Andrés Guasch "24 urtean Andaluzian bizi den eibartarra" eta Rafael Tienda "Eibar asko maite duen Fuengirolako laguna" daude enpresa berriaren buruan eta benetan eskertu nahi diote aurreko asteko jaiari parte hartu zuten guztiei, "eurak barik honek aurrera egitea ezinezkoa litzatekeelako".

- Nolatan sartu zara hotela zabaltzeko abenturan? Nolako izan da prozesua?

Ba dena iazko azaroan hasi zen, gu azken bezeroak ginela jakin genuenean. Nire lankidea den Rafael Tienda eta biok Arrate hoteleko bezeroak izan ginen urteetan eta benetan harrিতa geratu ginen egun batetik bestera hotela itxi egin behar zutela jakin genuenean, ezin genuen sinetsi. Herrerako beharginekin berbetan hasi eta eurek proposatu ziguten hotela geuk hartzea, erdi txantxetan. Eta horrela hasi zen dena. Hilabeteetako negoziazio oso gogorak eta gero, eta Eibarko Udalak hotela berriz zabaltzeko interesak bultzatuta eskainitako laguntzari esker, uztailaren 26an hotelaren kargu geuk hartu genuela modu ofizialean esateko moduan geunden eta hortik aurrerako guztiak oso modu azkarrean egin genituen: hotelean konpondu eta txukundu beharrekoeak egin eta abuztuaren 10ean gure lehenengo bezeroari harrera egin genion.

- Arrate hotela itxi aurretik, lehenagoko beharginekin isti-

luak egon ziren, lehenago jabeek ordaintzen ez zietela eta. Unzaga Plaza zabaltzean lehenago beharginak hartu dituzue ala berriak kontratatu dituzue?

Gu enpresa berria gara eta, beraz, gure eskaintzara, hau da, eskaini nahi dugun zerbitzu motara moldatu eta egokitzten diren beharginak hartu ditugu. Aurreko beharginetatik 6 kontratatu ditugu, harrera eta mantenimendu arlokoak, eta beste lanpostuak betetzeko 19 behargin berri hartu ditugu, denak edo ia denak Eibarkoak.

- Denbora gutxi da hotela zabaldu duzuela. Orain arteko martxa nolako ari da izaten?

Gauzei neri gustatzen zaidan moduan, hau da, patxadaz begiratu gero, ba ez dakit denbora tarte laburregia ez ote den ezer esaten hasteko. Baina gauzei modu positiboan ere begiratzea gustatzen zait eta, alde horretatik, hotela

martxan egon den lehenengo 50 egunetan %60-66 bitarteko okupazioa izan dugu eta hori ez da gutxi. Kontuan izan, gainera, jendeak denborarekin prestatzen dituela bere oporrak eta, alde horretatik, desabantaila izan da uztaila amaierara arte inon publizitaterik ipintzeko aukerarik ez izatea.

- Nolako turistak ailegatu zaizkizue? Eta zelako turistak erakarri nahi dituzue?

Orain arte estatutik zein atzeritik etorri zaizkigu, baina guri, normala denez, turismo mota guztiak interesatzen zaizkigu. Egia da gurea kalitate ertaineko turismoa eta hortik gorakoa izaten dela eta hemen pasatzen dituzten egunetan, gainera, hoteletik kanpora ere dirua lagatzen dute Ei-

bar eta inguruko taberna, jate-txe, denda eta bestelakoetan. Europatik datozen eskaerak apur bat bereziak izaten dihardute, bestalde. Horiek, orohar, astebete osoa ematen dute hemen eta horientzat zein beste guztientzat hemengo eskaintzarekin pakete modukoak osatu nahi ditugu, ba-koitzaren gustuen arabera aukeratzeko modukoak: Eibarko Museoa, Balenciaga Museoa, Elgoibarkoa... hamaika aukera eskaintzen ditu Debabarrenak eta inguruak eta askotan guretzat bereziki erakargarriak ez diren gauzak oso interesgarriak gertatzen zaizkie kanpokoei. Adibide bat ipintzearen, aurreko batean bezero batek interes handia zuen bizar bariko Kristoa non zegoen jakiteko eta galdetzen galdetzen hara non eta Azitaingo elizan dagoen, eta seguru jende askok hori ez dakiela, hemengo izanda ere!

“Gure eskariari egokituta, 19 behargin berri kontratatu ditugu”

1.784 atzerritar dagoz Eibarren. Gure populaziñuaren azken datueri begiratuta, 27.560 lagun bizi bagara herrixan, %6'47xa besterik ez. Batzuren inpresiñua "jan egingo gaittuela" bada be, estatuan emoten dan batz-bestekua baiño atzerritar gitxiago dagualako Eibarren: erdixaren inguruan gabiz (estatuan %12-13 bueltan dabiz). Horrez gaiñ, batzuk esaten daben "llamada efektuak" baiño gehixago funzionatzen dau gurian "nezesidade efektuak", kanpotarren biharra dogulako gure nagusixak zaintzeko, adiñian gero eta aurrerago doian soziedade honetan.



Estatuaren inmigraziño erdixa dogu Eibarren, EAEn parekua

Juan zan eguenian Inmigraziñuaren Paktu Sozialaren ekitaldixa egin zan udal- txian. Han izan ziran gure herriko 45 alkarteko partai- diak, "tartian inmigrantiak be ordezkatuta". Eibarko gizarte- ko errepresentaziño zabala bildu zan bertan (kirol eta kul- tura arloko taldiak, emaku- mien asoziazziñuak, gurasuen alkartiak, Lanbide, administra- zziñua) eta han izandako deba- te-erreflexiñotik etaratako on- dorixuekin "hainbat etxeko- lan" geratzen jakue egitteko, Udalarendako Innovasque txostenian idatziko diranak. Gorka Errasti Inmigraziño tek- nika-rixak diñosku Eibarkua EAEn egitten dan hirugarrena izan zala: "Aurretik Ermuan eta Berrizen egin zan. Paktu Sozial hori iaz Eusko Jaurlaritzak abian jarri eban ekimena da. Mundu politikotik kanpoko adittuen taldia osatu da horre- tarako eta osatuko dan doku- mentuan gobernuak jarraitu biharreko ardatzak markatuko dira". Plana baiño gehixago, fi- losofixa bat markatuko da, al- derdixak eta alkartiak siñatu- ko dabena.

Eibarko teknika-rixak "gure arteko konbibentzia hobetze- ko" neurri moduan ikusten dau ahalegiñ hori, "krisi sasoi hau une egokixa dalako inmi- graziñuaren inguruan esku sar- tze-ko". Konbibentzia aldatze-


ko ahalegiñetan Kataluñia al- dian egindako saiueri jarrai- tzen detsela diño eta han emon dirala progresiño horre- tan urrats nagusixenak. Inmi- graziñuaren inguruko hango eta hamengo jarrerak pareka- tzen dirala diño eta "arrazake- rixa puntuaren haunditziare- na" aittatzen dau gaur egungo arazo nagusi moduan: "Politi- koki korrektua zana baztertu eta bildurra galdu dau jen- diak. Zaratia etara eta edozein txutxumutxu zabaltzen da gi- zartian eta hartzailliak, pixka bat pentsatu biharrian, egixa balitz moduan hartzen dau eta aurrera". Horren aurrian, "txar- tel gorrixa" etartzeko ordua dala diño Errastik.

Genero-biolentziarekin jen- dia jabetu eta hazten juan dan neurrixan, hamen be ahalegin berezixa egitteko aldekoa da udal teknika-rixax. Interneten komentario bat baiño gehixa-

61 nazionalidadeko atzerritarrek Eibarren


Marokko.....	613
Portugal.....	129
Kolonbia.....	112
Bolivia.....	100
Pakistan.....	95
Dominikar Errep.....	86
Brasil.....	77
Ekuador.....	69
Senegal.....	50
Peru.....	47
Txina.....	38
Errumania.....	36
Venezuela.....	35
Argelia.....	33
Nikaragua.....	30
Argentina.....	23
Kuba.....	21
Italia.....	18
Mali.....	16
Txile.....	15
Frantzia.....	12
Honduras.....	11

Latinuak: %40
Afrikarrak: %37
Europearrak: %17
Asiarrak: %6



Lacasiu dogu inmigrantien talde partehartzaillenetakua gure herrixan.

go aurkittu leike horren ingu- ruan eta, halako txutxumu- txueri erantzuteko, "boluntari- xuak osatutako rumorien aur- kako sarixa osatu dabe Barte- lona inguruan". Krisi sasoietan indarra hartzen dabe halako jarrerak, "batez be ahulenaren kontra: inmigrantia kasu hone-



Gorka Errasti Eibarko Inmigraziño teknika-rixax, Paktu Sozialerako ordezkari- xekin. S. HERNANDEZ

tan". Inmigratiñuak sistemaren zuluak etarutzen dittu-eta.

Horregaittik ipiñi eben aurreko domekan Untzagan, Kulturen arteko Jaixaren IV. ediziñuaren barruan, kaja bat jendiaren aportaziñuak jasotzeko, "zurrumuruaren txokua, kontrazurrumurua egitteko". Komunikabidiok be lan horretan asko lagundu geinkela us-te dau Errastik.

Kulturen arteko Jaixa

Laugarren ediziñua izan da aurtengua eta "hartu-emon haundixa izan zala eta jende askok erantzun ebala" diño Gorkak. Marrueko Safa, Latinamerikako Lacasium eta Euskal Kontseillu Islamiarraren batera, M'Lonp Senegale-

ko alkartia eta Paik Bizkaia Pakistangua izan ziren ekitaldiak antolatzen, tartian "jende asko dantzari ipiñi eban kontzertua".

Gure herrixan marrokixak dira askogaittik gehixenak atzerritarren artian: "Oin dala 40 bat urte etorri ziran lehelenguak eta kanpotarren herena osatzen dabe". Azken aldixan, bestalde, pakistandarrena da gehixen igo dan kopurua eta bosgarrenak dira atzerritarren sailkapen horretan: "Euren herritik baiño, Bartzelonatik, Logroñotik eta Azkoittitik bertatik etorri dira". Hala-kasuetan, "lan-merkatuaren atzetik etortzen dira". Eibartarrok zelan hartzen dittugun galdetuta, "latinuak gertuago"



Domekan Untzagan egin zan Kultur arteko IV. Jaixa. LEIRE ITURBE



Herriko 45 alkarte izan ziran aurreko eguenian egindako Inmigratiñuaren Paktu Sozialaren ekitaldixan. S. HERNANDEZ

ikusten dittugula esaten desku Errastik. "Katolikuak be badira... Islama beti urutiago ikusten dogu".

Berarengana ez dabela laguntza billa jotzen diosku teknikarixak: "Batez be, arlo juri-dikuaz zeozer galdetzer, egoera administratibuaz eta famelixia ekartzeko egin biharrekuak jakitteko". Bere sailletik sensibilizaziñua landu dabe ikastetxietan, Armerixa Eskolarekin kolaborau eta, biztanlerixari begira, integraziñua da gehixen lantzen dabena.

Azken urtiotako flujueri begira, "ahotik belarrirako bi-diari jarraitzen detse askok eta, holan, Kolonbiatik datozenak asko Cali ingurukuak

dira, Senegalekuak lehen forjan ibillittakuak eta azken aldixan gehixago datoz Espaiñatik: Murtzian eta Levante aldiari konstrukziñuan ibillittakuak, esaterako". Badira "bueltatzen hasi diranak be, Brasilera kasu". Latinuen kasuan, "asko dira, gaiñera, karreradunak eta hamen euren ikasketen maillaren azpittik lan egiten dabena".

61 nazionalidadeko atzerritarrek dittugu Eibarren, horrek erakusten dabena aniztasunarekin. Eta, populaziño osuari begira, %27 EAetik kanpo jai-xotakua da. Martxan ipiñi da, bestalde, II. Inmigratiñua eta Aniztasuna Kudeatzeko Plana, 2012-2016 lau urtekua.

U R R I A

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

A Z A R O A

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

A B E N D U A


					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairuarta
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkarte@etakitto.com
www.etakitto.com

Egin zaitez
...eta kitto!ko
bazkide!



2 0 1 2 k o
u d a z k e n e k o
k u l t u r
e s k a i n t z a

...eta kittol Euskara Elkarte

Kurtso hasiera Ingeniaritza Eskolan

Aurreko barixakuan ekin zioten ikasturteari Eibarko Ingeniaritza Eskolan, Mekanika eta Industria-Elektronika espezialitateetan ikasketak amaitu dituzten ikasleei diploma emateko ekitaldiarekin. Besteak beste, ingurumenarekin lotutako gaietan aditua den Antxon Olabe ekonomilariak hitzaldia eman zuen eta, diplomak eman aurretik, Angel Franco zuzendariak eta Miguel de los Toyos alkateak ere berba egin zuten.




Uni-ko ikasleak Izarra-ra bisitan

Gazteen artean sormena sustatzeko asmoz, Administrazio eta Finantzetan, Multiforma Aplikazioen garapenean eta Informatika Sistemetan goi mailako zikloetako 2. mailako Uni Eibar-Ermuko ikasleak Izarra Centren bisitan izan dira, lana bilatzeko ideiak sortzea helburu zuen jardunaldian. 25 urtetik beherako gazteen artean langabezia tasa %25 ingurukoa da eta, horregatik, autoenplegua gazteen artean indartzeko oso baliagarritzat jotzen dituzte azken urteotan Uni Eibar-Ermua eta Ermuko Udaleko Promozio Ekonomikorako sailaren arteko elkarlanaren ondorioa diren horrelako saioak.

URRIA

Urriak 1, astelehena
San Andres bertso-paper
lehiaketako epea hasi.

Urriak 6, zapatua
Sagardo Eguna. 12.00etatik
15.30etara eta 19.00etatik 21.00etara.
Untzagan. Euskal Herriko Gorenak
elkarteko 13 sagardotegiren parte
hartzearekin.




Urriak 7, domeka
Kilometroak-era (Andoain)
autobusak. 9.30etan T. Etxebarriatik.
Urriak 21, domeka
Nafarroa Oinez-era (Zizur Txikia)
autobusak. 8.30etan Ego Ginetik.

AZAROA

Azaroak 5, astelehena
San Andres bertso-paper
lehiaketako epea amaitu.

Azaroak 6, martitzena
"Eta Karmele?" antzerkia
Illunabarrian programaren barruan.
19.00etan Portaleko areto nagusian.




Azaroak 14, eguaztena
"Euskararekiko motibazio eta jarrerak" gurasoei zuzendutako
hitzaldia. 14.45etan Portaleko
ikastaro gelan.


Azaroak 25, domeka
San Andres bertso-jaialdia,
19.00etan Portaleko areto nagusian.
18.30etan San Andres bertso-paper
lehiaketako sariak banatuko dira.

ABENDUA

Abenduak 1, 2, zapatua eta domeka
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
pailazoak, Unibertsitate Laboralean.



Abenduak 3
Euskararen Eguna. Toribio
Etxebarriaren urteurrena eta euskararen
'horma-irudia'. Untzagan.



Abenduak 18
"Euskararen erabilpena sustatzeko"
Julian Iantziaren
hitzaldia.
Arratsaldeko
19.00etan
Portaleko areto
nagusian.

Abenduak 31, zapatua
Kirolkitto! kirol sari banaketa
ekitaldia, 12.00etan Portaleko areto
nagusian.

...eta horrez gain:
Barixakuero ...**eta kitto!** astekaria
Hilero **Txikitto!** umeen aldizkaria
Astero **Berbetan** mintzapraktika
taldeak; baita ere **guraso**
eta **dendarientzat**
Itzulpenak eta **diseinu lanak**
www.etakitto.com

TEEN AJEAK

27 urteko eibartar honek ekainean amaitu zituen Arkitektura ikasketak Donostian eta ikasketa amaierako proiektua Erreballi eskaini dio. Orain Madrilen dago, lan bila, eta estudioren batean beharrea hastea gustatuko litzaioke, 3D infografiatan trebatzen jarraitzeko.

- Zeintzuk dira zure proiektuaren ezaugarri nagusiak?

Inguruarekiko errespetua eta, horrekin batera, Errebal eta inguruko merkataritza berpizteko nire asmoa. Materialei dagokienez, Eibarko industria tradizioa kontuan hartuta, burdina eta hormigoia dira nagusi. Plan Nagusiari jarraituta Coliseo parean parke publiko baterako tokia aurreikusi dut. Altuera ezberdinak (Errebalgo etxeak, El Casco etxea, Muzategiko etxe berriak eta errehabilitazio zentrua) lotzen doazen estalkiak espazio publiko modura erabiltzekoak dira eta erakusketa egiteko aprobetxatzeko aukera ere badago. Adibidez, Alfa Arten egiten dituzten lanetako batzuk bertan erakutsi litezke.

- Nola egituratu duzu tokiaren erabilera?

Beheko solairuan hiru merkatu mota ezberdin hartuko litzukeen merkata joango litzateke: Errebal parean baserritarak hartzeko merkata legoke eta barruan, berriz, beste postuak ipintzeko, lehengo merkatu plazaren bidetik; hirugarren merkata degustazio modukoa izango litzateke, jendeak ardo, gazta, iberiko eta horrelakoak hartzeko aukera eskainiko lukeen merkata. Lehenengo pisua (4 metroko altueran) jatetxe eta

kafetegirako erabiltzea proposatzen dut. Dena beiratearekin inguratuta egongo litzateke. Lur azpian, lehenengo solairuan zalmalnetarako eta biltegiarako tokia egongo litzateke eta 2. eta 3. solairuak, berriz, aparkalekuak joango lirateke. Dena alde zuzenetik egindako elementuekin egitea da nire proposamena, horrela eraikitzea merke eta beharrak azkarrago amaitzeko.

- Zergatik aukeratu duzu Errebal karrera amaierako proiekturako?

Ibarkurutzekoa naiz eta oso parean izan dut Errebal: lehengo merkatu plaza ezagutu nuen, gero tokia poliki nola degradatzen joan den ikusi dut, inguruko negozioak moteldu... Inguru hori nola hobetu pentsatzen hasita sortu nuen proiektua.

- Proiektua diseinatzeko orduan beste nunbaitetik hartutako adibideak izan dituzu kontuan?

Madrilen bizitzen egon naiz eta han San Migueleko merkata goitik behera berri zuten. Degustaziorako azoka bilakatu dute, zerbait hartzera joateko aukera eskaintzen duten hainbat postuarekin eta jendeari asko gustatu zaiola ikusi dut, horregatik pentsatu dut horrelako zerbaitek Eibarren ere arrakasta izan dezakeela.



Cristina Gabilondo
(ARKITEKTOA)

"Errebal ingurua hobetzeko egin dut proiektua"

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com


FILOAULA

Estudiatzen ikasi!!

- Estudiatzeko Orientabide ikastaro berezia.[®] Ikaslearen baldintza eta helburuei, eta hezkuntza sistemaren eskakizunei, egokitutako ikaste teknikak.
- Filosofia klaseak.
- Irakurketa Ulerkorrerako tailerrak.

Maila guztiak: LH, DBH, Batxilergoa...

www.filoaula.com
San Juan, 3 - 1.
Tel. 658-710827



Belen Fernández-en KOLABORAZIOA

"Tadeoren abenturak"

Bazen behin Tadeo izeneko mutikoa arkeologoa izatea nahi zuena: arkeologo handia. Hazterakoan bere ametsaren atzetik jarraitu zuen, eraikuntzan peoi bazen ere. Obretako zimenduetan balorea izan zezaketen objektuen bila ibiltzen zen. Egun batean, hankasartze bat tarteko, Perura doan espedizio batean bidaliko dute Tadeo, eta horrela hasiko du bere abentura arkeologikoa.

Tadeo Jones orain dela 11 urte jaio zen Indiana Jonesen parodia modura, Enrique Gatoren eskutik. Las aventuras de Tadeo Jones-eko sortzaile eta zuzendariaren pertseberantziak erakusten digu, bere pertsonaiaarekin modura, ametsak errealitate bihurtu daitezkeela. Denbora horretan, Gatok Goya bi irabazi ditu, animaziozko laburmetraia onenari emandakoak biak: 2006an Tadeo Jones-engatik, eta 2008an Tadeo Jones y el sótano malditorenengatik. Nahiz eta, batzuetan, pertseberantzia nahikoa ez izan eta zorteari lotutako bultzada bat behar duen, Tadeori gertatzen zaion moduan. Egia esateko, Lightbox Entertainment animaziozko estudioan sortutako filmak komunikazio talde handienetako baten laguntza jaso baitu, Mediaset-ena hain zuzen. Horrela, pelikulak 30 herrialde baino gehiagotan estreinatzeko aukera izan du azken bi hilabeteotan.

Bikoizketari dagokionez, apustua segurua izan da. Miguel Angel Jenner eta Soundub estudioaren batutak gidatuta, Las aventuras de Tadeo Jones-eko pertsonaiek bizitza hartzen dute, beste batzuen artean, Oscar Barberán (Tadeo moduan), Jose Mota umoregile ezaguna -edo Jose Corbacho katalanerazko bertsioan- (Freddy-rena egiten) eta Michelle Jenner (Sararen paperean) ahotsetan. Familia guztiak gozatzeko moduko filma.

ZINEA

Zinema koprodukzioa sustatuko dute EAEk eta Brasilek

Bi industrien arteko harremanak estutzeko topaketak egin dituzte egunotan sektoreko profesionalak. Etxepare Institutuak, Ibaiak, Zinemaldiak eta Eikenek antolatutako jardunaldiok, bi industrien arteko koprodukzio sistema bultzatzeko asmoarekin. Hain zuzen ere, Brasilgo hamabi egitasmo eta EAEko hamabost aurkeztu dituzte, koprodukzio eredu bilatzeko asmoarekin.



Estreinaldi bakarra euskaraz Zinemaldiko Zinemira Sailan

Joxeanjel Arbelaitzen "Leku hutsak, hitz beteak" izan da zinemaldiaren azken edizioan Zinemira Saileko estreinaldien atalean proiektatu den euskarazko lan bakarra. Bidean geratu dira hainbeste polemika sortu duen bost euskal presori buruzko "Barrura begiratzeko leihoak" dokumentala eta baita Jon Maiaren "Gazta zati bat" ere, aurrean euskal zinemari eskainitako saila inoiz baino eraldunago bihurtuz.

ANTZERKIA

"Su txikian" antzezlanak prestatzen dihardu Glu Glu konpainiak

Azken hamarkadan euskal gaztaren konponbiderako saioek ibilitako bidea erakutsiko duen ukitu dramatikorako antzezlan dokumentala prestatzen ari da Glu Glu konpainia. "Su txikian" antzezlanak azken hamar urteotako zenbait pasarte eta ezinbesteko elkarrizketa sekretuak eramango ditu taula gainera, bere lorpen zein frustrazio guztiekin, bake prozesua eta elkarbizitzaren hasiera tarteko.



Markeliñe arte eszenikoen olinpiadetan izan zen

Londresko Watch This Space jaialdi ospetsuan izan da Zomozko talde betearnoa, "Carbon Club" ikuskizuna erakusten. Londresen urtero antolatzen den Festivalen mundu guztiko antzerki taldeak biltzen dira eta bizkaitarrek "Carbon Club" ikuskizunaren bi emanaldi eskaini dituzte. Aurten hirugarrenez aurkeztu dira Londresen eta inoiz baino arrakasta handiagoa izan dute, "emankizuna bizi-bizia delako eta pirotekniaren indarra duelako".





Txotx!

*Urriak 6
zapata*

goizez eta arratsaldez



1993an ekin zion ...eta kitto! Euskara Elkarteak Sagardo Eguna antolatzeari, baina orain lau urte geldiuena egin eta gero, guztiz aldatu zen egun handi hori. Egun osoko ekitaldia egitea erabaki eta gero, iaz Gorenak Sagardoak markako lagunekin elkarlana hasi zuen elkarteak. **Goizez eta arratsaldez** egindako ekitaldiak dira gaur egun. Gainera, urtero **berritisunak** sartzea da helburu, eta aurten ere horietako bat izango da.

Irrintziarekin batera, hasiko dugu bale salmenta eta dastaketa, 12.00etan.

erakusketa

Sei euroren truke

Mota biko tiket edo baleak izango dira salgai eguerdiko 12etatik aurrera, udaletxe parean izango den salmenta puntuan. Tiket nagusiak sei euro balioko du eta urteroko moduan horren trukean edalontzia, zapia, pintxo eta txotx-a izango dira. Pintxoetan aukera bi izango dira, txorizoa eta gazta; pintxo horren balea izango da bigarren aukerakoa. 1,50 euroko prezioarekin beste pintxo bat jateko aukera izango duzue. Udaletxe parean izango dituzue bale salmenta eta edalontzien banaketa.



Sagarraren eta sagardoaren ingurukoa Eibarren erakusteko aukera bat izaten da zapatukoa. Hori dela eta, **erakusketa** prestatu du Elkarteak aurten ere. Izan ere, Euskal Herrian sagarrondo asko dago, leku askotan egiten da sagardoa eta horrek bere dinamika eta lan prozesua ditu. Baina, gainera, bazenekien Euskal Herrian dugun sagar kopuru eta mota izugarri handia zela? Zapaturako **hamasei aukeratu dira** eta horien berri emango da erakusketan. Gainera, **sagardoa egiteko** ematen den **prozesua** ere ikusi ahal izango da.

Sagar bilketa lehiaketa

Eibartar gaztetxoek ondo pasatzen dute Sagardo Egunean. Aurten erakusketa ikusteko aukera izateaz gain, eurendako lehiaketatxo bat ere izango da. Euskal Herriko sagardogileak lanez lepo dabilta egunotan, izan ere, sagarrak batzeko sasoia dugu asteotan. Horregatik, 13.00etik aurrera, gaztetxoek taldeka ipini eta sagar bilketa egingo dute Untzaga erdian horretarako jarriko den gunean. Zeinek jasoko ditu azkarren ...eta kitto!k ipinitako sagarrak?



GOIZEZ:

12.00etatik 15.30etara

ARRATSALDEZ:

19.00etatik amaitu arte


BI TIKET MOTA IZANGO DIRA:

6 eurokoa

(edalontzia, zapia, pintxoa eta nahi beste sagardo)

1'5 eurokoa

(pintxoa: txorizoa eta gaztaia eta menbriloa)



13 sagardotegi Gorenak

Alorrenea (Astigarraga) **Altzueta** (Hernani) **Barkaiztegi** (Donostia) **Begiristain** (Ikaztegieta) **Egi-Luze** (Errenteria) **Gartziategi** (Astigarraga) **Gaztañaga** (Andoain) **Gurutzeta** (Astigarraga) **Isastegi** (Tolosa) **Olaizola** (Hernani) **Sarasola** (Asteasu) **Zapiain** (Astigarraga) **Zelaia** (Hernani)



#SagardoEguna euskaraz Twitter eta Facebook-en

...eta kitto!k iaz egin zuen lehenengo twitter eta facebook bitarteko #SagardoEguna-ren kontaktuzuna. Aurten, baina, eibartarren laguntasuna beharko du elkarteak. Zergatik ez dugu euskaraz kontatzen zapatuan Untzagan gertatzen dena? Egingo dugu zozketa bat parte hartzaile guztien artean? Gaur egun hain garrantzitsuak diren sare sozialetan txokoa eman nahi dio ...eta kitto!-k, euskarak bere txokoa izan dezan twitter eta Facebook-en: erabili dezagun #SagardoEguna hitz gakoa eta ikusi dadila interneten zertan dabil-tzan eibartarrak zapatuan. Hori guztia lortzeko asmoarekin, twitter eta Facebook erabiliko dira, Sagardo Eguna eta euskarak lekua izan dezan bi sare sozial horietan.

Azkeneko hiru urteetan Untzagan musika entzuteaz gain, esatarri batek girotu du jaialdia, baina aurten zuek izango zarete protagonista: twitter bitartez egun horretan Untzagan dagoen giroa adieraziko dugu #SagardoEguna hitz gakoa erabilita. Gure esata-



riak jasotzen ditugun mezuak irakurriko ditu, #sagardoeegunean bizitako #unegorenak ezagutarazteko. Animatu eta idatzi zein izan den Untzagara sartu zarenean bizi izan duzuna, zeinekin zauden, gustokoen izan duzun sagardoa, nahi izanez gero, idatzi zure bizitako une gorena.

Gertatzen den guztiaren berri

@etakitto-k emateaz gain, Untzagan dagoen jendeak ere eman ahal izango du, euskal komunitateak jakin dezan #eibar-en ere Sagardo Eguna indartsua dela. Jasotako tweet guztien artean zozketa bat egingo du ...eta kitto!-k urriaren 10ean eta datorren asteko alean, tweet esanguratsu, interesgarri edo originalenak kaleratuko ditu.

Zozketaren irabazleak Gorenako hamahiru sagardotegietako botila bana irabaziko du.

Argazkiak Facebook-eko orrian

Azkeneko urtean ...eta kitto! Euskara Elkartearen webgunean (www.etakitto.com) eta Facebook-eko orrialdean argazki-bildumek arrakasta handia dute. Bisita kopuruak gora egin du nabarmen, eta horrelako egunetan gehiago. Hori jakinda, zapatuan bertan izango dituzue #SagardoEguneko argazkiak Facebook-eko orrialdean. Goizean egindako argazkiak arratsalderako izango dituzue zintzilikatuta eta arratsaldekoak domekan bertan izango dira ikusgai.

Jendez gainezka egiten du Untzagako plazak urriaren lehenengo zapatuan. #SagardoEguna urteko zita garrantzitsua bihurtu da herrian. Gorenak markako hamahiru sagardoak probatzeko aukera izango duzue, argazkiak egiteko aukera, Twitter eta Facebook-en egunean egindakoak komentatzeko aukera. Giro paregabea, euskaraz, euskal kultura eta gure ekonomian hain garrantzitsua den sagardoa zuen eskura izango duzue.





Aspek "EGIZU JOKALDIA" plana eskaini die pilotazaleei

Gizarteak bizi duen krisia arlo askotara zabaldu da eta pilotazaleen kopurua ere asko jaitsi da azken aldian frontoietan. Hori dela-eta, enpresak hasi dira hainbat neurri hartzen; horien artean kokatu behar dugu Aspek Astelenara joaten diren pilotazaleei atzo aurkeztu ziena, Udalarekin batera egindako ekitaldian. Profesionalen partiduen denboraldia domekan hasiko da Astelenan eta, horrekin batera, Aspek martxan ipiniko du "Eibarren pelota, plan biribila" bataiatu duen egitasmoa, "Egizu jokaldia" izenburuarekin.

Ibon Arakistain pilota enpresako komunikazio arduradunaren esanetan, "Astelenara jende gehiago erakartzeko as-

moz, bi neurri mota hartu ditugu: komertziala esan dezakeguna da bata eta zaletuei eta federatuei eskainitakoa bestea". Merkatal arloan, Aspek Chalcha jatetxearekin, Gespark Txaltxa-Zelaiko parking-arekin eta Arkupe gastro-pub-arekin adostutako lau pack aurkeztu



ditu: **egun-pasa pack-a** (Chalchako menua, kantxako jarlekua eta parking-a, 60 eurotan), **gozamina pack-a** (menua eta kantxako jarlekua, 50 eurotan), **pilota pack-a** (kantxako jarlekua eta parking-a, 30 eurotan) eta **afari-merienda pack-a** (jarlekua, parking-a eta afari-merienda Arkupe gastro-pub-ean, 50 eurotan).

Astelena frontoiaren aldeko apostu berezi honetan ahalegin berezia egin dute pilotazaleen alde ere eta, horrela, 16 urtetik beherakoek 3 euro barruk ordaindu beharko dute jaialdi bakoitzeko eta 12 urtetik beherakoek doan izango dute sarrera. Federatuen kasuan, bestalde, 18 urtera artekoentzat eskaintza berezia izango da: bi sarrera izango di-


Aspe pilotako enpresak, Eibarkoa izanda, ahalegin berezia egin nahi izan du Astelena frontoia saso bateko sarrerak izan ditzan eta, horretarako, hainbat eskaintza egin dizkie pilotazaleei. Zaletasun horren mesedetan, gainera, gazteendako hainbat abantaila ere aurkeztu zituen atzo, Udalarekin batera emandako prentsa-aurrekoan. Esku-pilota komunikabideetan oihartzun handiena duen modalitatea izan arren, gero eta gehiago kostatzen da frontoia betetzea.

tuzte doan, beti ere heldu batak lagunduta joanez gero.

Irujo denboraldi hasieran

Domekan 17.00etan hasiko den denboraldiko lehenengo jaialdian, lau eta erdiaren barruko txapelketarako postu baten bila jardungo dute, nor baino nor, Aritz Lasak eta gaur jokatuko den Idoate eta David Merinoren arteko irabazleak. Jarraian, Irujok eta Laskurainek Retegi Bi-k eta Zubietak osatutako bikoteari egingo diote aurre. Eta, amaitzeko, Ongayk eta Jaunarenak jokatuko dute, buruz-buru.

Gaur, bestalde, 19.15etan hasiko den jaialdian, Klub Deportiboko pilotari afizionatuak izango dira hiru partidutan, uretatik bi senior mailakoak.



FELIPE MAGUNAZELAIA AMENABAR

(I. urteurrena: 2011-X-8)

Haren aldeko MEZA ospatuko da urriaren 6an, zapatuan, arratsaldeko 19.00etan, San Andres parrokan.





Jose Antonio Rementeria

Sasoi bikaina

Eibarko kirolak duena: desiotik baino gehiago du errealitatetik. Gizartearen beste arloei eragiten dien krisiak badu hemen ere bere presentzia; hala ere, kirolean da gutxien igartzen dena, emaitzak bikainak baitira maila indibidualean zein kolektiboan. Ez dugu ahaztuko Ander Romaratek Londresko Paralinpikoetan egindako lana eta eredugarria da berarekin diharduten Urbateko prestatzaileen lana. Hor daude Manu Agirreren zuzendaritzapean domina asko irabazten dituzten Kalamuako judokak ere. Gure herriari hainbeste poztasun ekarri dizkion eskubaloian ere, desagertutako J.D. Arrateren lekukoa hartu duen Eibar Eskubaloiak denboraldi bikaina egin du bere lehenengo urtean. Eibarko Klub Deportiboak gure herriaren idiosinkrasia gordetzen du babesten dituen kirol modalitate guztietan. Saskibaloian, Ruibal Alquiler-ek probintziako 2. mailara igo berri du eta Katu Kale hor dabil modalitatearen alde borrokan. Eibar Rugby Taldeak bikain lantzen du harrobia, aurtien Ohorezko B mailara igotzeaz aparte. Eibartarrak, Urki eta Eibar KE foballean nabarmentzen diren moduan, Ipurua Gimnasia Erritmikoek eta beste anonimo askok gure kirola handitzen dute. Eskuzabaltasuna eta gero eta hobe izatea nagusitzen dira guzti horietan, belaunaldiz belaunaldi transmititutako eibartarren espirituan. Uste dut Eibarrek ikaragarriko maila duela kirolean, sor daitezkeen mugak eta oztopoak gainditzen dituen.

Klub Deportiboko ate irekiek aurre egin zioten euriari

Iragarpenek ez zuten ezer onik; baina, hala ere, eguraldiak nahiko eutsi zion eta ekitaldi gehienak burutu ahal izan zituzten Klub Deportibokoek, aktibitate batzuk lekuz aldatu behar izan bazituzten ere. Eta baita beste batzuk laburtu, edo luzatu ere, bakoitzaren araber. Antolatzaileak pozik daude zapatuko egunarekin eta, inguratu ziren guztiei eske-



Imanol Alvarez entrenatzailea.

Bigarren zati bikaina Somos Eibar Eskubaloientzat

Puntu bakararekin bueltatu ziren Alvarezen mutilak Kantabriatik: bigarren zatia ikusita gutxitzat har daiteke; baina, jakinda atsedendaldian 15-7 galtzen joan zirela aldageletara, emaitzarekin konformatzeko moduan daude eibartarrak. Defentsako lana hobetu zuten, batez ere, eibartarrek; eta hor Moyua atezainaren lana erabakigarria izan zen, bai baloiak gelditzean eta baita kontraerasoei irteera ematerakoan ere. Emaitza horrekin, eibartarrak 3. postuan daude, Iruñeako San Antonio eta Soriaren atzetik. Bihar jokatu dute hurrengo jardunaldian, Somos Eibar-ek Amazsa Urdaneta talde bizkaitarra hartuko du.

Harrobiko taldeei dagokienez, Euskal Ligaren lehen jardunaldian, jubenilek 33-27 irabazi zuten eta kadeteek 23-25 galdu Ipuruan jokatutako partiduetan, biak ere Loiola Indautxuren kontra.

Altuera jauzia Untzagan; behean, rokodromoan. L. ITURBE.



rrak emateaz gain, "gure eguneroko ekintzatar hurbiltzeko" gonbitea egin diete eibartar guztiei. Asmo berarekin, eta lan asko eskatzen badute ere, halako egunak errepikatze-ko asmoa azaldu dute. "Batez ere, jendeak zer egiten dugun jakin dezan; eskaintzen dugunaz jabetu daitezten".

Eibarko erdigunea hartu zuen Eibar Klub Deportiboko ate irekien jardunaldiak, zapatuko goiz eta arratsaldean. Ikusmin gehien piztu zutenen artean, San Andres parrokiako kanpandorrera egindako eskalada aipatu dezakegu; eta, eguraldia dela-eta, kaltetuenen artean goizeko mendi-irteerak daude.

GIZA AHALMENEN MUGA

APUNTA

Gizonezko luzera-jauziko marka 1991koa da (Mike Powell-ek Tokion lortuta), pertika-jauziko 1994an ezarri zuen Sergei Bubkak, eta igeriketako asko moteldu dira 2010ean poliuretanozko bainujantziak debekatu eta igerilariak ohiko jantzi-erara itzuli zirenetik. Hobekuntza marjinak asko murriztu dira eta zenbait zientzialarik giza ahalmenen mugetatik oso gertu gaudela uste dute. Frantziako Kirol Institutu Nazionalekoek uste dutenez, kirolari-ek gizakion ahalmen fisiko naturalen %99 garatu dute dagoeneko. Diotenez, hemendik 2027ra, aztertutako 147 kirol desberdinen erdiak euren mugara helduko dira eta, hortik aurrera, errekorrak ezin izango dira %0'05ean baino gehiago hobetu. Egindako ikerketen arabera, 1968an atletek euren ahalmen fisiologikoen %75ean jarduten zuten eta gaur egun, aldiz, %99an aritzen dira: hor apenas dugu hobekuntza ahalmenik. Usain Bolt, baina, ohiz kanpoko talentua da: haren denbora 100 metroan 9.58 da. Gizakiari jarritako muga? 9.29.

Concepto Egilek liga hasiko du bihar

Bihar, 19.30etan hasita, egingo du debuta El-goibarko Olaizaga kiroldegian Concepto Egilek, probintzian maila handiena duen areto-fobal-leko taldeak. Zaragozako Colo-Colo izango dute aurkari, denboraldi berrirako asko indartu den taldea, iaz lehen postuan amaitu zuen baina aurten jarraituko ez duen Ebrosalatik hainbat jokalar hartu baitute. Debabarrenakoek 6. postuan amaitu zuten azken denboraldia eta postu hori hobetzea dute helburu orain hasiko den berrirako; horretarako fitxatu dituzte Balerdi atezaina eta Buitre, Fher, Raul Nieto, Koldo eta Alex Santiago jokalaririk.



Concepto Egileren jokalaririk berriak.

berriak

EHIZA TXIKIA

Diana Ehiza eta Arrantza elkarteko Iñigo Gisasolak irabazi zuen Arabako Zambanan jokaturako gure eskualdeko ehiza txikiko txapelketa senior mailan. Eta beterranoetan bere aita Luis izan zen irabazlea, Juan Manuel Isasi taldekidearen aurretik. Emaitza horiekin hirurak sailkatu dira Gipuzkoako txapelketarako.

Igor Fernández hirugarrena izan zen San Migueleko igoeran

Domeka goizean Elgoibarren jokaturako San Miguel-eko igoeran 26 atleta izan ziren parte hartzen, iaz baino gehiago (orduan 18 izan ziren) baina

aurreko edizioetan baino gutxiago: hasierako edizioetan 50 parte-hartzailetik gora izan zuen probak. Iñigo Lariz elgoibartarrak erakustaldi bikaina eman zuen eta ia minutu bi kendu zizkien Jorge González eta Igor Fernándezi: azken hori izan zen Eibarko onena (21 minutu eta 35 segundo). Emakumezkoetan Pilar Lamas izan zen bakarra parte hartzen.



Koskor-ek galdu egin zuen foball zaletuan

Aspaldi gertatu gabekoa ikusi ahal izan zen Kiroljokoa foball zaletuaren ligako hirugarren jardunaldian, azken edizioeko txapeladuna eta azken urteotako talderik onenak galdu egin baitzuen: Txokok irabazi zion, Ivanen eta Mikelen golekina, ezustea emanez. Emaitza horiekin, Durango eta Alkideba dira orain arte jokaturako hiru partiduak irabazi dituzten bakarrak: azken jardunaldian bizkaitarrak Caserío-KOX baino gehiago izan ziren (3-0) eta Alkidebak 4-2 irabazi zion Somos Sporting azken sailkatuari. Zazpi punturekin dago Garajes García, hirugarren postuan, Irukirekin berdindu eta gero.

Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegora:
Eibarkoak, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euzkadi

• Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao •
• Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sopupe •
• Espinosa de los Monteros •

HP 650 Portatila

Intel Celeron Dual Core, 4 Gb. Ram, 500 Gb. disko gogorra. HD Graphics 15.6", DVD+/-RW, Webcam, Windows7 Home premium 64.


338€ bakarrik

BEZ %21 sartu gabe



eitek

Urtzaille, 1 (Aurrera edifizioa, C lokala). Eibar
Tel. 943203090. Fax 943204249
www.eitek.net - eitek@eitek.net



IÑIGO IZAL komikilaria

"Komikiak jendaurrean erakusten dudan lehen aldia da"

Aurreko barixakuaz geroztik eta domekara bitartean, Topalekuan, Arrate Kultur Elkarteko erakusketa aretoan, Iñigo Izal Azkarate nafarraren komiki-erakusketa dago martxan. Erakusketa ohiko ordutegian bisitatzeko aukera dago: gaur arratsaldean 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta domekan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

- Noiztik marrazten dituzu komikiak?

Betidanik, bizitza osoan izan dut komikiak marrazteko zale-tasuna. Klasean nengoela, apunteak hartzen, hor ibiltzen nintzen marrazkiak egiten, edozein une eta tokitan marrazteko ohitura handia nuen eta oraindik ere horrela jarraitzen dut.

- Hala ere, zuk ez duzu honetan lan egiten, ezta?

Ez. Nire ikasketek eta eguneroko lanak komikiarekin zerikusi gutxi daukate. Izan ere, nik ikerkuntza arloan egiten dut beharra, laborategi batean, beraz hor egiten dudanak ez dauka inolako loturarik marrazkiekin. Egia da, baina, komiki munduan zerbait gehiago egitea gustatuko litzaidakeela. Orain arte batez ere marrazki solteak egin izan ditut, ez dut inoiz istorio edo holakorik sortu. Web orri baterako (www.realytime.com) komikiak marrazten ditut, baina gidoia beste lagun batek, Patricia Sánz-ek egiten du, ideia ere berak izan zuen. Anaiarekin batera bideojoko baterako kolaborazioa ere egin izan dut, alde grafikorako marrazkiak sortzen, baina zerbait gehiago egitea gustatuko litzaidake.

- Zu nafarra izanda, nolatan ailegatu zara Topalekura?

Egia esateko, hauxe da nire lanak erakusten dudan lehen aldia, orain arte ez baitut erakusketa edo holakorik egin. Topalekuko erakusketekin arduratzen den Maite Arriaga ezagutu nuen eta bera bere margoetaz berbetan hasi zen, ni nere komikiez eta berak proposatu zidan nire lana Eibarren erakustea. Horrela, berbetan, tarte bat topatu eta erakusketa antolatu dugu.

- Eta nolako esperientzia izan da?


Aurreko barixakuan, inaugurazioan bizi izandakoa bitxia izan zen niretzat, esperientzia berria, jendeak galdetu egiten zidan ia nola egiten nituen marrazkiak, piskat denetarik...

- Nola ikusten duzu komikiaren mundua gaur egun, gure gizarteetan? Komikizalea zara?

Nik neuk ez dut komiki larregi irakurtzen, laburrak egiten zaizkit, nahiago ditut eleberri grafikoa komikiak baino. Edozein modutan ere, ez dut uste gure inguruan jarraitzaile asko dituen generoa denik.

Old Seed bakarlaria Karrikan

Old Seed, Kanadako indio folk bakarlariak domekan kontzertua emango du 19.00etan Karrika tabernan (sarrera doan). Antolatzaileen berbetan, "hainbat talde-tan jardun eta gero, azken urteetan bakarkako bideari ekin dio Winnipeg-eko abeslariak. Urtean zehar, biran, etxean baino egun gehiago ematen dituen musikari honek esperientzia handia dauka taula gainean eta Euskal Herrira datorren hirugarren aldia izango da honako hau eta aurrekoan ere Karrikan izan genuen, bere doinu goxoekin".



Sanmiguelak giro ederrean

Agiñaga auzokoek asteburu osoan, barixakuan hasi eta domeka bitartean, ospatu zituzten San Miguel jaiak. Urteroko moduan, paella-jan ederra egin zuten jaira gerturatutakoek eta jaiak agurtu aurretik, hainbat opariren zozketa egin zuten.

Kilometroak-erako autobusa Toribio Etxebarriatik

Domekan, urriaren 7an ospatuko da Kilometroak. Gipuzkoako ikastolen jaia Andoainen eta bertara joateko autobusak antolatu dituzte Juan Antonio Mogel ikastolako Gurasoen Elkarteak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Zazpi autobus izango direnez, Ego Gagnetik irten beharrean Toribio Etxebarria kaletik izango da irteera, 09.30etan. Bueltarako autobusa, berriz, 19.30etan irtengo da Andoainetik.



Maiaren "Gazta zati bat" Coliseoan ikusgai

Jon Maiaren azken ikusentzunezkoa, "Gazta zati bat" datorren eguaztenean emango dute Coliseoan, 19.00etatik aurrera (sarrera 2'5 euro). Nazioen Munduan ekimenetik abiatzen da filma, eta lanak Euskal Herria eta Eskoziako herritarren erabakitze eskubidearen inguruan dihardu neurri haundi batean, herri kirolen truke batetik abiatuta. Zuzendariaren berbetan, "dokumental honek euskal gaztazka modu berritzailean aurkezten du: hainbat gertakizunen inguruko gertuko begirada eskaintzen du, letra txikiz kontatzen du histo-




Erabakitze eskubidearen gaia ukitzen du ikusentzunezkoa.

ria, gertutasunetik, intimismotik eta umoretik... Gizatasunaren faktorea azpimarratzen du eta historiaren eta kazetaritza kroniken estereotipoetatik aldentzen da".

Dokumentala Nazioen Munduan kolektiboaren ekimena da eta Pixelek produzitu du. Xabi Solano eta Zigor Lanpre DZ izan dira musika sortzeko ardura izan dutenak.

Enpanadaren jai hartuko du Urkizuk

Bihar, zapatua, 11.00etatik aurrera ospatuko dute As Burgas Galiziako Etxekoek III. Enpanadaren Jai Urkizuko parkean. Ordu horretan Galiziako produktuen salmentarako taberna zabalduko dute eta 13.00ean, berriz, gonbidatuei harrera egingo diete. Jarraian III. Enpanada Lehiaketa hasiko da: lehiakideek etxean egindako enpanadak eramango dituzte eta epaimahaiak onenak aukeratuko ditu. Ondoren, 14.00etan, sari-banaketa ekitaldia hasiko da: lehenengo geratzen denak 150 euro eta garaikurra eramango ditu, bigarrenak 90 euro eta garaikurra eta hirugarrenak 60 euro eta garaikurra. Jaiak arratsaldean jarraituko du: 16.30etan umeendako tailerrak daude antolatuta eta jai iluntzean agurtuko dute.



Hiru argazkilariren lanak ikusgai

Hileroko moduan, **Klub Deportiboko Argazkilaritza** taldekoek urriaren 31ra arte hiru argazki erakusketa izango dituzte ikusgai herriko bes-

te horrenbeste tabernatan: Los Ramosen "Buenos Aires Maitia" El Ambigú kafetegian, Jose Luis Irigoienek "India" Portalea tabernan

eta Jesús Botaroren "Camboya" Klub Deportiboan. Hiruak tabernak zabalik dauden bitartean ikusteko moduan izango dira.


laburrak

GIDA BERRIA

Liburutegian gida prestatu dute, "irakurtzen ikasteko". Gida gurasoek ikasturtean zehar urtero eskatzen dituzten liburuez hornitu dute (letra larria dutenak, letra etzanaz idatzita daudenak, bietan...). Asmoa gurasoen edota irakasleen aukeraketa lanak erraztea da.

1956-AN JAIOTAKOAK

Urriaren 20an Krabelinen bazkaria egingo dute 1956an jaiotakoek eta bazkarira joan nahi dutenek urriaren 10erako eman beharko dute izena 75 euro Kutxan sartuta (210100351801281608 01). Informazio gehiagorako www.eibar1956.com webgunean sartu edo eibar1956@gmail.com helbidera idatzi.



KONTZERTUA

Zapatuan 00.00etan Rock&Road Ermuko taldeak kontzertua emango du Akara tabernan (Untzagan). Taldeak maketa bi kale-ratu ditu eta hainbat txapelketatan parte hartzen izan da. Sarre-ra doan izango da.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 fax: 943 202564



- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Leire Narbaiza

Liburu elektronikoa

Liburu-denda baten sartu, portada koloretsuak ikusi, liburu barrixak laztandu, hartu, zabaldu, usaiña egin. Ba ete dago plazer txiki haundixagorik? Liburutegira juan, apaletan saltsan ibili, liburu bat hartu, atzekua irakorri, aukeratu eta etxera eruan. Ba ete dago hori baiño momento itxaropentsuagorik? Bai, gozatu edarra hartzen dogu liburuzaliok liburuekin. Liburu kuttunak dittugu, guretako berezixak izan diranak: maitte dogun batek erregalau deskulako; edo erreka onduan irakortzen guztiz katiauta geguzela, uretara jausi jakulako eta luzaruan leidu ezinda ibili izan garalako interesantien zeguanian... Bai, aitortzen dot, neu be halakua naiz. Neuk be gorde izan dittut liburuetan eskindutako loriak, jasotako gutunak, bizitzako souvenir txikixak... Batek baiño gehixagok fetitxista deittu arren, bardin detsa, liburuak maitte dittugulako. Bai neuk be esaten neban ez nebala liburu elektronikorik gura, papelaren ikumena nahi nebala, usaiña eta hotsa... Probau neban arte! Oiñ, liburu elektronikuak be maitte dittut; izan be, zenbat liburu irakorri eta ahaztu dittugu? Ez deittu beletosa! Probautakuan, esango destazue, askoz gehixago leiduko dozue. Liburu barrixen usaiña ahaztu barik, merezi daben liburuekin usmauko dozue-eta!

○ Euskararen altxoraren mapa

Euskalkiek euskarari ekartzen dioten aberastasuna jaso eta zabaltzen duen 1984an abian jarritako asmoari jarraituz. Herri Hizkeraren Atlasaren IV. liburukia aurkeztu du Euskaltzaindiak. 145 herritan 320 lekukori egindako inkestak eman die ikerlariari atlasa osatzeko lehengaia. Inkestaleku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.163 lexikoaz, 595 morfologiaz, 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herrietan egindako inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren eta Euskaltzaindiak bilduta dituen grabazioak 4.000 orditik gora dira (bataz beste, 27 ordu herriko).

euskararen txokoa

○ Ikasle gutxiago euskaltegetan

Lau ikasletik bat galdu dutela ohartarazi dute itunpeko euskaltegiek, behin-behineko datuekin kezka agertu eta gero: uste dute hizkuntz politika okerragatik eta krisiagatik izan dela jaitsiera. Jaurlaritza behin betiko zenbakien esperoan dagoen bitartean, euskaltegiek malgutasuna eskatu dute arazolari aurre egiteko. Euskararen estatusa kaskartu egin dela ere esan dute, matrikulazioak horren eraginez gutxituta. Kontua baita krisiarekin %18 handitu direla ingeleserako matrikulazioak eta %60 alemanekoak. Ingelesa ikasi ezinik, gainera, 17.000 lagun geratu dira.

Dantzan.com webgunea berriz martxan

Arazo ekonomikoek eraginda bertan behera laga behar izan zuten dantzan.com webgunea, baina bere arduradunek ahalegin handia egin dute webguneari eutsi ahal izateko eta, horri eta jaso duten laguntzari esker, berriz martxan dago: "Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa eta diru-laguntza izan du dantzan.com-ek berriz ere dantzan hasi ahal izateko. Martxan jarri ahal izateko adina bildu dugu, baina ez luzaroan segitzeko. Horregatik, denon artean indar egiten eta bultzatzen jarraitzera gonbidatu nahi zai-



tuztegu, adibidez, dantzan.com-en parte hartuz eta zuen ekarpenak eginez". Gainera webgunea biziberritu dute, besteak beste erabilzailleen parte-hartzeari gehiago zabalduta.

Cielito domekan Coliseoan

Cielito Musika Bandak domekan, 12.30etan, kontzertua emango du Coliseoan, honako egi-



taruari jarraituta: "Suspiros de España" (A. Alvarez-en pasodoblea), "Iparragirre" (Carlos Sánchez-Barbaren herri-abestien bilduma), "Granada" (Agustín Lara), "Variazioni In Blue" (Jacob de Hann) eta "The Blues Brothers Revue" (Jay Bocook-ek moldatutako bilduma). Kontzertua Iñaki Orbegozok zuzenduko du eta Carlos Sánchez-Barbaren "Iparragirre" lana estreinekoz entzuteko aukera izango da.


Liburu bat erosi eta beste bat opari

UEUren web-orriko dendan urriaren 7ra arte egindako erosketek arlo berbereko argitalpen bat izango dute opari. Horrez gain, Interneteko erosketak guztiek %10eko beherapena dute eta, UEUko bazkidea izanez gero, deskontua %30ekoa da. Erosketa gauzatzeko erregistratu beharra dago: jarraitu erosketa egiterakoan azaltzen diren pausak eta, ondoren, zure e-postan kontua aktibatzeke mezua jasoko duzu.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitteda bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitteda-n.




Zorionak, ALAITZ Urizar Bravo, eguaztenian 11 urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ANER López Egaña, atzo urtebete egin zendualako. Gurasuen, aitxita-amamen eta Danel anaixaren partez.



Zorionak, MAIALEN, atzo sei urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, amama Esther-en partez.




Zorionak, JONE, atzo bederatzirte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, HIART, domekan hiru urte bete dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, HELENE, honezkeroko zortzi urte bete dozuz-eta. Zelako neska haundixa! Askok maitte zaittugu, potxola.



Zorionak, CARMEN eta PACO, zuen urrezko ezteietan. Muxu haundi bat famelixaren partez eta "ondo pasa bixar".




Zorionak, IÑAKI eta ANDER, irailaren 24an eta urriaren 1ian urtiak bete dozuz-eta. Patxo asko etxekuen partez.




Zorionak, MARKEL (zazpi urte) eta amama ROSA, atzo urtiak egin zenduz-eta. Patxo haundi bat!




Zorionak, IZASKUN eta PAUL, irailaren 29an ezkondu zifiaten-eta. Zorionsuak izan zaitteztela, famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IRATI, eguaztenian zortzi urte potolo egin zenduaz-eta. Amatxo eta aitaxoren partez.



Zorionak, MARKEL, astelehenian bi urte egin zenduaz-eta. Patxo asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKO, bixar bi urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IBONE eta ANDER, eta muxu haundi bat aitaxo eta amatxoren partez gure printzesa eta kapitainarentzat.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

5an: 22.30
6an: 19.45, 22.30
7an: 20.00
8an: 20.30

"El legado de Bourne"

Zuzendaria: Tony Gilroy




(2 ARETOAN)

5an: 22.30
6an: 17.00, 19.45, 22.30
7an: 17.00, 20.00
8an: 20.30

"Moonrise kingdom"

Zuzendaria: Wes Anderson



(ANTZOKIAN)

5an: 22.30
6an: 17.00, 19.45, 22.30(2D)
7an: 17.00(2D), 20.00
8an: 20.30(2D)

"Resident Evil" 3D

Zuzendaria: Paul Anderson



(1 ARETOAN)

6an: 17.00
7an: 17.00

"Los tres chiflados"

Zuzendaria: Peter Farrelly



BARIXAKUA 5

GAZTELEKUA

16.30. Sukaldaritza. Indianokua gaztelekuan.

DANTZA

20.30.- "Arte-an", Dantzas konpainiaren eskutik. Sarrera: 8 euro. Coliseoan.

hildakoak

- Jose Andres Alkoba Garate. 59 urte. 2012-IX-27.
- Javier Sarraua Amutxastegi. 81 urte. 2012-IX-27.
- Antonia Irusta Mallukiza. 88 urte. 2012-IX-30.
- Isidoro Quincoces Ezkerra. 84 urte. 2012-X-1.
- Crescencia Ortiz de Villalba Bengoa. 93 urte. 2012-X-1.
- Rafael Monge Aranzabal. 65 urte. 2012-X-1.
- Maite Ziaran Dávila. 80 urte. 2012-X-2.
- Jesus Arando Alberdi. 73 urte. 2012-X-2.

jaiotakoak

- Andres Espinoza Villafaña. 2012-IX-13.
- Riham Atmani Zeghdad. 2012-IX-23.
- Iker Merino Francisco. 2012-IX-23.
- Uxue Astarloa Susaeta. 2012-IX-24.
- Miren García Alonso. 2012-IX-28.
- Alex Sáez Sánchez. 2012-IX-28.
- Maddi Uriguen Vicente. 2012-IX-29.

ZAPATUA 6

ENPANADAREN JAIA

11.00. Galiziako produktuen salmentarako taberna irekiko da.

13.00. Gonbidatuei harrera eta III. Enpanada lehiaketa.

14.00. Sari-banaketa ekitaldia.

16.30. Umeendako tailerrak.

21.00. Jaiaren amaiera. Urkizuko parkean.

SAGARDO EGUNA

12.00/15.30 eta 19.00/21.00. Sagardo Eguna. Gorenak elkarteko 13 sagardotegietako sagardoa, pintxoak... Untzagan.

GAZTELEKUA

17.00.- Dardo txapelketa. Indianokua gaztelekuan.

KONTZERTUA

00.00.- Rock&Road (Ermua) taldearen kontzertua. Sarrera doan. Akara tabernan (Untzagan).

DOMEKA 7

KILOMETROAK

09.30.- Kilometroak-era (Andoain) joateko autobusa (buelta 19.30etan). Toribio Etxebarriatik.

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

KONTZERTUA

19.00. Old Seed. Sarrera doan. Karrika tabernan.

EGUAZTENA 10

IKASTEN

10.15.- Mendi-ibilaldia, Landara. Autobusaren irteera Ego Gaietik.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19.00. "Gazta Zati bat", Jon Maiaren ikus-entzunezkoa. Sarrera: 2'5 euro. Coliseoan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ikastaroak

✓ Autoen mekanika eta etxeko konponketak

Non eta noiz: **Urriaren 9tik azaroaren 27ra arte, martitzenetan, 17.50etatik 19.50etara Andretxean.** Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

✓ Autodefentsa feminista

Non eta noiz: **Urriak 20, goiz eta arratsaldez Portalean (ikastaro gelan).** Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

✓ "Sentitu, pentsatu ekin eta mugitu feminismoan!"

Non eta noiz: **Urriaren 1etik azaroaren 5era arte, astelehenean, 18.00etatik 20.00etara San Andres ikastetxean.** Informazioa eta izen-ematea: Andretxean (943700828 telefono zenbakian), Berdintasun Arloan (Portalean, 943708440 telefono zenbakian).

HOROSKOPOA

ARIES

Zoratu egingo zara! Ezin duzu hainbeste gauza batera egin, horretarako denbora behar delako. Osasuna irabaziko duzu.

TAURUS

Krisian gaudela? Zu beti! Poltsikoan sosik gabe ibiltzen zara gehienetan-eta! Lasai, dirua edukitzea ez da garrantzitsuen.

GEMINI

Asteburu ederra pasatuko duzu lagun artean; azken aldia faltan bota dituzu. Zure esku dago halakoak errepikatzea.

CANCER

Moral gutxirekin zabilta: burua batek daki non eta ezertarako gogorik gabe. Bitamina faltan? Fruiturik jaten duzu?

LEO

Ateren bat ixten baduzu, baliteke inoiz gehiago ez zabaltzea. Gauzak egin aurretik ondo pentsatu beharko zenuke.

VIRGO

Zirkora joatea pentsatu duzu? Ez ikusle bezala, artista moduan baizik! Pentsatu ondo: munduan zehar bidaiatzea...

LIBRA

Datorren astean baten batek agurtzen ez badizu, ikusi ez zaituelako izango da. Zuri ez zaizu inoiz halakorik gertatu?

SCORPIUS

Hobe duzu mugikorra soinu gabe ipintzea. Zein tonu edo musika da hori? Lotsarik ez duzu! Diskretuago izan zaitez.

SAGITTARIUS

Noiz joan zinen museo batera azken aldiz? Joan zara noizbaiten? Gauza interesgarriak aurkitu ditzazkezu bertan.

CAPRICORNIUS


Buzoian jasotzen duzun gutzia huskeria da. Non geratu dira maitasun sutsuen gutun erromantikoak? Ez gara inor!

AQUARIUS

Eman garrantzia gauza txikiei ere; hala izanda ere, euren balorea dute. Gauzak behar diren moduan baloratzen ikasi.

PISCIS

Jokoa gustoko baduzu, ez egin apusturik. Astroek zure aurka daude eta ezin duzu ezer egin. Dirua galduko duzu, seguru!



telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etarik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00. **EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro. **EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Eguzkerako: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Eguzkerako: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Eguzkerako: 07.47etatik 20.47etara ordu. 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Eguzkerako: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Eguzkerako: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

erakusketak


- ✓ **Urriaren 7ra arte**
IÑIGO IZAL.
Komiki erakusketa.
Topalekuan.
- ✓ **Urriaren 14ra arte**
JUAN ANTONIO PALACIOS.
Argazki erakusketa.
Portalean.
- ✓ **Urriaren 31ra arte**
LOS RAMOS. "Buenos Aires Maitia"
argazki erakusketa.
El Ambigú kafetegian.
JOSE LUIS IRIGOIEN. "India"
argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
JESUS BOTARO. "Camboya"
argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.

farmaziak

- ✓ **barixakua 5**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **zapatua 6**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **domeka 7**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **astelehena 8**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **martitzena 9**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguztena 10**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguztena 11**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **barixakua 12**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

SUDOKUA

	3	9	6	7				8
5					8	6		
		8						1
	4			9		1		
	8							2
		7		5				3
7						4		
		6	1					3
8				3	4	9	6	



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Igogailua. 149.000 euro. Tel. 672-622774.
- Pisua salgai Estaziño kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, 2 komun eta trasteroa (8 m²). Igogailua. 81 m². Guztiz berritua eta altzariekin. Tel. 660-739563.
- Pisua salgai Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, komuna, ganbara eta balkoi handia. Berritzeko eta igogailua jartzekotan. Tel. 645-008496.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Wenzeslao Orbean. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Dena kanpora begira. Merke. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 622-049086.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eibaren edo inguruan. Tel. 628-872295.

1.3. Konpartitzeko

- Urkin pisua konpartitzeko laguna behar dut. Tel. 686-735525.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Txomon. Autoa garbitzeko aukera eta komuna. 135 euro hilero. Tel. 670-931564.
- Garaje itxia alokagai Arrate-Biden. Garbitokiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.
- Garaje itxia alokagai Jose Antonio Gisasola kalean. Tel. 610-698277.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Orduka. Tel. 659-080186.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Orduka. Tel. 602-110441.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tel. 618-354218.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tel. 629-994385.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 659-101631.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 638-233739.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da orduka asteburuetan nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel. 689-436454.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-303237.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 685-552352.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 650-152866.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko-lanetarako. Tel. 638-884104.
- Laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko egunez, gauzez edo orduka. 28 urteko esperientzia. Tel. 660-511781. Elena.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Esperientzia. Tel. 652-248893.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Tel. 632-253170.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Tel. 636-362251.
- Neska eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-155950.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 608-180132.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta soziedadarako garbitzeko. Tel. 674-259376.
- Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 647-898016.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-363778.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 662-012834.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-912841.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 627-784812.
- Neska euskalduna eskaintzen da ile-apindegi batean lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Tel. 610-096417.
- Biolin eta cello bikotea eskaintzen da ezkontzak, mezak eta beste ekitaldietan musika jartzeko. Tel. 666-269636 (Elorri) eta 666-329728 (Joana).
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 645-555265.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-604531.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-205572 eta 618-175692.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-236564.
- Emakumea eskaintzen da etxeko-lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 645-557141.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 648-505256 eta 943-821537.
- Gizona eskaintzen da baserriko lanak egiteko, tabernak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 688-812845.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 649-775029.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-348180.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 674-027961.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako, batez ere ileapaintzaile moduan. Tel. 652-305279.
- Neska arduratsua eskaintzen da astean birritan eta zapatu goizetan etxeko lanak egiteko. Tel. 680-973549.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Magisteritzako irakaslea eskaintzen da klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko. Tel. 638-855268.
- Irakaslea eskaintzen da errefortzu klaseak eta ikasteko teknikak emateko. Esperientzia. Tel. 696-036560.
- Neska eskaintzen da klase partikularrak emateko banaka, urte osorako edo zatika. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-348446.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- 40 eta 30 diametroko hodiak salgai. Oso merke. Tel. 943-120308.
- MP4 eta Panasonic haririk gabeko telefonoa salgai. Berriak. 25 euro biak. Tel. 943-120030.
- Autorako segurtasun aukia salgai. 1 taldea, Chicco markakoa. Tel. 669-208763.

6.2. Eman

- Batxilergoko 1. eta 2. mailako liburuak oparitzen ditut. Tel. 672-428273.

Soluzioak
zure esku

BOZKATU

ehbildu



eta
kitto!

GIDA
PRESTATZEN
DIHARDUGU...

eibar
GIDA
2013

Agertuko zara, ezta?

DEITU...

943 20 67 76
943 20 09 18



bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75**